

Aprobetxamendua guztira: 9.430 m² (5.330 m² arrasetik gora eta 4.100 m² arrasetik behera)

Hain zuzen ere, hurrenez hurren, 0,65 m²/m²-ko eta 0,50 m²/m²-ko.

Erabilera nagusia: bizitegiak.

Erabilera osagarria: gehienezko aprobetxamendua: % 10 arrasetik gora. Beti behe solairuan. Barruko kaleko arrasetik behera dagoen solairua aparkalekutarako eta beste jarduera sailkatu batzuetarako era-biliko da.

Betebeharrak: espacio libre eta bideetarako lagapenak. Espazio horien urbanizazioa eta irabazikso aprobetxamenduaren % 10, hots, 4,1 etxebizitzak, 530 m² arrasetik gora, eta 410 m² arrasetik behera, edo bestela horren balioa dirutan.

Egikaritze unitateko jabeek eta udalak erdi bana zainduko dituzte jabari publikoko zonak.

Kudeaketa: kooperazioa izango da jarduketa sistema. Egikaritze unitatearen etorkizuneko kudeaketarako, solairu eta altuerari dago-kienez, arrasa edo sestra ofiziala egikaritze unitate barruko bidearen arrasa edo sestra izango da.

Urbanizazioa: urbanizatu beharreko azalera: 4.226 m² (8.200 m²-3.974 m²)

UE-2 egikaritze unitatea urbanizatzen amaitzeko, bi urte izango dira urbanizatzen hasteko ezinbestekoa den birpartzelatze proiek-tua behin betiko onartzen denetik aurrera.

HIRIGINTZA ETA INGURUMEN SAILA

5.010

601/2005 FORU AGINDUA, uztailaren 11koan. Honen bidez behin betiko onartzen da Haraneko planeamenduko ordezko arauen xedapen aldaketari buruzko expedientea, Kontrastako hiriguneko 14 poligonoko 695 lurzatiari dagokiona.

I.- AURREKARIAK

Lehena.- 2003ko irailaren 25ean Haraneko Udalak ordezko arauen xedapen aldaketari, Kontrastako hiriguneko 14 poligonoko 695 lurzatiari dagokionari, hasierako onarpena ematea erabaki zuen, baita espediente hori hilabetez jendaurrean jartzear. Azken horretarako iragarkia argitaratu zen Arabako Lurralde Historikoaren ALDIZKARI OFIZIALean (122 zenbakia), 2003ko urriaren 20koan, eta el Periódico de Álava egunkarian, 2003ko urriaren 21ekoan.

Bigarrena.- Expedientea aztergai egon zen bitartean, ez zen ale-gaziorik aurkeztu. Beraz, Haraneko Udalak, 2003ko azaroaren 25eko osoko bilkuran, expedientea behin-behineko onartzea eta behin betiko onespresa eman ziezaioten Arabako Foru Aldundira bidaltzea erabaki zuen. Expediente horri 2004ko otsailaren 4an eman zioten sa-rerra foru aldundian.

Hirugarrena.- Autonomia Erkidego osorako erakundeek Arabako Lurralde Historikoari hirigintza alorriari dagozkionetan aginpideak es-kualdatzeari buruzko martxoaren 5eko 35/1985 Dekretuak eranskinokino a) idatz-zatiko hirugarren puntuaren araututakoarekin bat etorriz, es-pedientea Euskal Herriko Lurraldearen Antolaketa Batzordeak aztertu zuen martxoaren 4ko 2/2004 bilkuran.

Laugarrena.- Era berean, abenduaren 14ko Diputatuen Kontseiluaren 155/99 Foru Dekretuan ezarritakoa betez, Arabako Hirigintza Batzordeak aztertu zuen expedientea, uztailaren 7ko 6/2005 bilkuran.

II.- OINARRIAK

Lehena.- Txosten honetan aztertzen den xedapen aldaketari buruzko expedienteak Kontrastako 14 poligonoko 695 lurzatia berriro sail-katzea du helburu. Egun lurzati hori lurzoru urbanizaezin da eta 13 zo-naren (nekazaritzarako) barruan dago. Orain, berriz, lurzati hori bizitegitarako hiri lurzoru kalifikatu nahi da eta OD4 (Kontrastako in-gurueta barreiatutako eraikinen zona) aplikatu nahi zaio.

Bigarrena.- Expedienteak lurzatiaren sailkapen aldaketaren be-harra arrazoitzen du, zeren eta aldaketa idatzi duen teknikoak ikusi eta egiaztatu baitu expedientea izapidezean Haraneko Udalean Lurzoruen

Aprovechamiento total: 9.430 m² (5.330 m² sobre rasante, y 4100 m² bajo rasante)

Ha sido calculado con 0,65 m²/m² y 0,50 m²/m² respectiva-mente.

Uso característico: Residencial.

Uso complementario: 10% máximo aprovechamiento sobre ra-sante, situándose en todo caso, en Planta Baja. La planta situada ba-jo la rasante de la calle interior se destina a aparcamiento subterrá-neo y actividades clasificadas.

Obligaciones: Cesiones para espacios libres y vialidad. Urbanización de estos espacios y cesión del 10% del aprovecha-miento lucrativo, es decir, 4,1 viviendas, equivalentes a 530 m² so-bre rasante y 410 m² del uso bajo rasante, o su compensación eco-nómica.

El mantenimiento de las zonas demaniales se realizará al 50% por parte de los propietarios de la actuación y al 50% por parte del Ayuntamiento.

Gestión: El sistema de actuación será el de Cooperación. Para la futura gestión de la Unidad de Ejecución se acuerda como rasante oficial a los efectos del parámetro de Plantas y Alturas, la rasante del vial interior de la Unidad de Ejecución.

Urbanización: Superficie a urbanizar: 4.226 m² (8.200 m²-3.974 m²)

En el fin de garantizar una conclusión del proceso urbanizador de la U.E.2, se establece un plazo de 2 años desde la aprobación definitiva del Proyecto de Reparcelación para el inicio de la urbanización.

DEPARTAMENTO DE URBANISMO Y MEDIO AMBIENTE

5.010

ORDEN FORAL 601/2005, de 11 de julio, de aprobación definiti-va del expediente de Modificación puntual de las NNSS de Planeamiento del Valle de Arana, referente a la parcela 695 del polígono 14 del núcleo urbano de Contrasta.

I.- ANTECEDENTES

Primer.- Con fecha 25 de septiembre de 2003, el Ayuntamiento del Valle de Arana acordó aprobar inicialmente la 4^a modificación puntual de las Normas Subsidiarias de Planeamiento referente a la par-cela 695 del polígono 14 del núcleo urbano de Contrasta, así como someter el expediente a información pública por el plazo de un mes, hecho que fue practicado mediante anuncio en el BOLETÍN OFICIAL del Territorio Histórico de Álava número 122 de 20 de octubre de 2003 y en el Periódico de Álava de 21 de octubre de 2003.

Segundo.- Durante el periodo de información pública no se pre-sentaron alegaciones, por lo que el Ayuntamiento del Valle de Arana, en su sesión plenaria de 25 de noviembre de 2003, procedió a la aprobación provisional del expediente y a su remisión a la Diputación Foral de Álava para su aprobación definitiva, donde tuvo entrada en el 4 de febrero de 2004.

Tercero.- De conformidad con lo dispuesto en el punto tercero del apartado a) del Anexo al Decreto 35/1985, de 5 de marzo, de transferencia de servicios de las instituciones comunes de la Comunidad Autónoma al Territorio Histórico de Álava en materia de Urbanismo, el expediente fue informado por la Comisión de Ordenación del Territorio del País Vasco, en su sesión 2/2004, de 4 de marzo.

Cuarto.- Asimismo, en cumplimiento de lo preceptuado en el Decreto Foral del Consejo de Diputados número 155/99, de 14 de diciembre, este expediente fue informado por la Comisión de Urbanismo de Álava en su sesión 6/05, de 7 de julio.

II.- FUNDAMENTOS

Primer.- El expediente de Modificación Puntual que se analiza en el presente informe tiene por objeto la reclasificación de la parcela 695 del polígono 14 de Contrasta, según nomenclatura de Catastro; actualmente su clasificación es suelo no urbanizable y se incardina dentro de la zona 13, agrícola, dicha parcela se pretende clasificar como suelo urbano con calificación de Residencial, aplicándosele la OD4 (zona de edificación diseminada en áreas periféricas de Contrasta).

Segundo.- El expediente justifica la nueva clasificación de la parcela al constatar el técnico redactor de la Modificación y al cer-tificarlo, en la tramitación del expediente, el Ayuntamiento del Valle

Erregimen eta Balorazioei buruzko 6/98 Legeak 14.1 artikuluan zerrrendatzen dituen ezinbesteko baldintzak betetzen dituela, hala nola, ur, saneamendu, argindar eta ibilgailuetarako sarbide errepideari dagozkionak.

Hirugarrena.- Bestalde ingurumen eraginari buruzko azterlanari buruzko behin betiko txostenean oinarrituta, eraikitze-proiektuak ondoko neurri zuzentzaileak jasoko ditu:

"Eraikina ezkutatuko duen landarezko pantaila jartzea. Pantaila hori, oro har, ondoko hazkunde bizkorreko hostozabalak eta koniferoak nahastuz eratuko da: lizarrak (*Fraxinus excelsior*), % 25, makal beltzak (*Populus nigra*), % 25, eta Leyland altzifreak edo nekostak (*Cupressocyparis leylandii*), % 25. Horiek batera bertako zenbait zuhaixka sartu ahal izango dira.

Landarezko pantaila, ikuspegia ezkutatzen duena, proiektatutako nekazaritzako habeartearen iparraldean eta mendebaldean ipini-ko da. Mendebaldean habearta bukatzen den hegoaldeko ertzetik bost metro harago joango da.

Pantaila eratzen duten zuhaitzak hiruzuloka landatuko dira metro birik behin eta, gutxienez metro eta erdi izan beharko dute.

Halaber, lanek dirauten bitartean aurreko paragrafoetan aipatutako neurri zuzentzaileen jarraipen beharrak egin beharko direla ohartazten da".

Horregatik guztiagatik, eta aitortzen zaizkidan ahalmenak balituz, ondokoa

XEDATU DUT:

Lehenengo.- Haraneko udal planeamenduko ordezko arauen 4. xedapen aldaketa, Kontrastako hiriguneko 14 poligonoko 695 lurzatiari dagokiona, behin betiko onartzea, baldin eta foru agindu honekako hirugarren oinarrian deskribatutako neurri zuzentzaileak betetzen badira.

Bigarren.- Erabaki hau Arabako Lurralde Historikoaren ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratzea.

Hirugarren.- Erabaki honek administrazio bidea amaitzen du. Beraz, interesdunek, egoki iritzi eta abiaraz dezaketen beste edozein neurri gain, ondoko errekursoak aurkeztu ahal izango dituzte:

a) Zuzenean, administrazioarekiko auzi-errekursoa Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzietarako Sailean. Horretarako, bi hilabete izango dira, egintza jakinarazi edo argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

b) Aukeran, eta aurrean aipatutako errekursoa jarri aurretik, beraztertzeko errekursoa, ebazprena eman duen organoaren aurrean, hura jakinarazi edo argitaratu ondorengo hilabetearen barruan.

Vitoria-Gasteiz, 2005eko uztailaren 11.- Hirigintza eta Ingurumen Saileko foru diputatua, MARTA ALAÑA ALONSO.

Iragarkiak

SUSTAPEN EKONOMIKO ETA BERRIKUNTZAREN KUDEAKETA SAILA

ZERBITZU OROKORREN ZUZENDARITZA

5.139

Espektrometroa erosteko lehiaketaren esleipenaren iragarkia.

1.- ERAKUNDE ESLEITZAILEA:

a) Erakundea: Arabako Foru Aldundia.

b) Expedientea izapidezten duen bulegoa: Zerbitzu Orokoretako Idazkaritza Teknikoa.

c) Expediente zenbakia: 192/05.

2.- KONTRATUAAREN HELBURUA:

a) Helburua: Indukzioz lotutako plasma bidezko igorpen atomikozko espektrometroa (ICP), erradio eta ardatz ikuspen bikotza duna, erostea eta funtzionamenduan jartzea, bai eta Laborategi Orokoreko langileak horren erabilera rako prestatzea ere.

b) Gauatzeko lekua: Vitoria-Gasteiz.

de Arana, la existencia de las condiciones necesarias para ello, que se regulan en el artículo 14.1 de la Ley del Suelo y Valoraciones 6/98, cuales son las redes de agua, saneamiento y electricidad y acceso rodado a la parcela.

Tercero.- Por otra parte, y en base al informe definitivo de evaluación conjunta de impacto ambiental el proyecto de edificación deberá incorporar las siguientes medidas correctoras:

"Colocar una pantalla vegetal de ocultación del edificio a realizar que quedará conformada por la siguiente combinación de especies frondosas y coníferas, en general de crecimiento rápido: fresno (*Fraxinus excelsior*) en un 25%, chopo negro (*Populus nigra*) en un 25% y ciprés de Leyland (*Cupressocyparis leylandii*) en un 25%, junto con otras especies arbustivas autóctonas acompañantes.

Esta banda de vegetación de protección y ocultación visual se dispondrá al Norte y Oeste de la nave agrícola proyectada, prolongándose la plantación de los árboles correspondientes a la barrera Oeste al menos 5 metros más al Sur de la prolongación de la pared del almacén.

Los árboles que formen dicha pantalla deberán ser plantados al tresbollo con un marco de plantación de 2 m, y una altura mínima de 1,50 m.

Asimismo, se advierte de que en la fase de ejecución de las actuaciones deberá realizarse la labor de seguimiento ambiental de las medidas correctoras descritas en los párrafos anteriores".

En su virtud, en ejercicio de las facultades que me competen,

DISPONGO:

Primer.- Aprobar definitivamente el expediente de la 4ª Modificación de las Normas Subsidiarias de Planeamiento del Valle de Arana, referente a la parcela 695 del polígono 14 del núcleo urbano de Contrasta; con las medidas correctoras y de seguimiento descritas en el fundamento tercero de esta resolución.

Segundo.- Publicar la presente resolución en el BOLETÍN OFICIAL del Territorio Histórico de Álava.

Tercero.- Contra la anterior resolución, que pone fin a la vía administrativa, podrán interponer los particulares cualquiera de los siguientes recursos, sin perjuicio de cualquier otra medida que se estime procedente:

a) Directamente, el recurso contencioso-administrativo en el plazo de dos meses a contar del día siguiente al de la notificación o publicación del acto, ante la Sala de dicha Jurisdicción del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco.

b) Potestativamente, y, con carácter previo al recurso citado, recurso de reposición ante el mismo órgano que ha dictado la resolución, en el plazo de un mes a contar del día siguiente al de la notificación o publicación de la misma.

Vitoria-Gasteiz, a 11 de julio de 2005.- La Diputada de Urbanismo y Medio Ambiente, MARTA ALAÑA ALONSO.

Anuncios

DEPARTAMENTO DE PROMOCIÓN ECONÓMICA Y GESTIÓN DE LA INNOVACIÓN

DIRECCIÓN DE SERVICIOS GENERALES

5.139

Anuncio de adjudicación del concurso para contratar el suministro de un espectrómetro.

1.- ENTIDAD ADJUDICADORA:

a) Organismo: Diputación Foral de Álava.

b) Dependencia que tramita el expediente: Secretaría Técnica Servicios Generales.

c) Número de expediente: 192/05.

2.- OBJETO DEL CONTRATO:

a) Descripción del objeto: Suministro, instalación y puesta en funcionamiento, así como la necesaria formación en su uso para el personal del Laboratorio General, de un espectrómetro de emisión atómica por plasma acoplado inductivamente (I.C.P.) con doble visión radial y axial.

b) Lugar de ejecución: Vitoria-Gasteiz.